

2021
Martxo
4 11 18 25

(20. edizioa)

IPARRALDEA BERTAN

Gurashow



Martxoak
4
osteguna
19:00etan



Bost kideetaz osatu Gurashow taldetik etortzen dira **Philippe Albor, Maider Cigarroa** eta **Kattalin Indaburu**.

Talde hortan emaiten dituzten kantu batzu emanen dituzte, baina nagusiki, hirukoteak, bakotzak bere kantu unibertsoetik atera kantuak eskainiko dituzte, bakarrik, bikotea edo hiruek elgarrekin, izan kantu herrikoi, euskal poetenak edo berdin sorkuntzak...

Helburua dute kantua eta musikaren partekatzea, denen plazerrarentzat.

EUSKAL IPUINAK: Eleka konpainia



Martxoak
11
osteguna
19:00etan

Eleka konpainia 2006an sortu zen Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin. Daniel Landart izan zen konpainiaren bultzatzailea bi artista horien tirriak elgarretaraziz. Funtsean, berak zituen lehenbiziko testuak hautatu eta arramoldatu.

Ikusiz alor horretan eskaintza eskasa zela, bi artistek sail horri lotzeko gogoia ukan zuten euskarari toki premiatsuena emanez, antzerki jokoa eta musika uztartuz. Bi bozetan ari izanez ipuinari bizitasuna eta arintasuna eman nahi zioten. Frango laster mediatekek eta eskola ezberdinek deitu zituzten.

2010ean, Txomin Heguy antzerkilari profesionalaren laguntzarekin *Hau dela, hori dela* ikuskizuna sortu zuten, Euskal Herriko hainbat tokitan aurkeztu zutena. 2020ean, Ikas pedagogia zerbitzuari esker, *Hala izan ala ez izan* izeneko diskoa argitaratu dute. Helduei eta haurrei zuzenduak zaizkien 15 ipuinez osatua da.

Kondalari & musikariak: **Kattalin Sallaberry** eta **Jokin Irungaray**.



LUR OLAIZOLA LIZARRALDEREN LABURMETRAIA: Libertatea



Lur Olaizola Lizarralde, trukatzeko parada izanen da.

Zein pelikula ikusi ote dira Ortzaizeko zine gelan? Zein irudi? Eta, Donibane Lohizuneko Le Sélect aretoan? Norbaitek film bat kontatzen dizunean, hitzak irudi bilakatzen dira: japonesak atun arrantzan, Cadillac eder bat, zerua blu. Irudiak pantailatik atera eta bizitzan sartzen dira. Elkarrizketa pantailarik gabeko zine areto bihurtzen da.

Proiektzioa aitzin, **Terexa Lekumberrik** Eleketa aurkeztuko du, EKE-k eramaten duen programa, ahozko oroimenaren biltzeko.

Eleketa, ahozko oroimenak
erakusketaren karietara, Euskal Kultur Erakundea-k (EKE) zinegile batzuei ahozko memorioaren gaia esploratzea eskatu die. Gaualdi hau *Libertatea* laburmetraia deskubritzeko eta egilearekin,

Lauburu taldea

Ttiti tipitik elgar ezagutzen duten kantariz osatua da **Lauburu** taldea. Aldude Urepelen sortuak, betidanik kantuz ari izan dira: familian, eskolan, lagun artean... Lauak «Iguzki Lore» haur koroan ibilirik, «Perruketak» taldea osatu zuten eta Jo Maris lagun, *Zuretake* izeneko CD bat grabatu.

Gaur egun **Lauburu** osatzen dute Katy, Nathalie, Paxkalin, Véronique eta Yvette-k. Hauekin hor dugu ere Maitena Monaco Baigorriara. Bakarleri gisa ari da. Kantu txapelketaren irabazle izan da. Errepertorioa, euskal kantu garaikidean (Xalbador, Lete, Berzaitz, Lurdes Iriondo...) hala kantutegi herrikoian hazten dira. Bi edo hiru bozetan berek moldatzen dituzte, gitarra lagun ezti ezia kantatzeko gogo belarrien gozagarri.

Kantari eta musikariak: **Katy Bidart, Paxkalin Aire, Nathalie Etchegaray, Yvette Oçafrain** eta **Mikel Erramouspé**.





kulturunea

Urdaneta kalea 9

20006 Donostia

Tel.: 943 112 893

kmk.gipuzkoakultura.eus

programazioa@gipuzkoa.eus



Ekitaldia
zuzenean
jarraitu



zuzenean>

 **eke 100**
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

Martxoak 4
Gurashow

Martxoak 11
EUSKAL IPUINAK:
Eleka konpainia

IPARRALDEA BERTAN

LUR OLAIZOLA LIZARRALDEREN
LABURMETRAIA:
Libertatea

Martxoak 18

Martxoak 25
Lauburu taldea

BERTARA JOATEKO BEHARREZKOA DA IZENA EMATEA:

TL. 943 11 28 93 (08: 30etik 14:30era)

programazioa@gipuzkoa.eus